AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

674

61/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 24koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Cristina Domingo Rico andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualdeko Eskualdeko zuzendari mediko kargutik kentzen duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 11ko 757/2010 Ebazpenaren bidez (martxoaren 25eko 57. EHAAn argitaratutakoa), Cristina Domingo Rico andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualdeko Eskualdeko zuzendari mediko izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe,

EBAZTEN DU:

Lehena.– Cristina Domingo Rico andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualdeko Eskualdeko zuzendari mediko kargutik kentzea, egindako zerbitzuengatik eskerrak emanda.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2014ko urtarrilaren 30tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Barrualdeko Eskualdeari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.